

**UPV/EHUko TEKAZEL LANGILEOK ERE BADITUGU ARRAZOIAK URRIAREN 25EAN
GREBARA JOATEKO**



Joan den asteazkenean, urriaren 11n, LAB, CCOO, Steilas eta ELA sindikatuek IRLen esparruan deitutako grebaren arrakastaren lekuko izan ginen. Campusak ia hutsik egon ziren, emandako eskola-kopurua oso baxua izan zen, eta irakasle-ikertzaileak bere egonezin sakona adieraztera joan ziren hiru hiriburuetako kontzentrazioetara; errektoretza-taldeari mezu argi eta sendoa bidaltzera: norabidea aldatu behar du, erabakiak modu aldebakarrean hartzeari utzi behar dio eta UPV/EHUko langileen kontrako neurriak gelditu.

Greba irakasle eta ikertzaileentzat bazen ere, **aldarrikapen gehienak UPV/EHUko langile guztionak** dira. Alde batetik, azken urteotan pairatzen ari garen lan-baldintzen murrizketen, Eusko Jaurlaritzak ezarritako gidalerroen onarpen akritikoaren eta unibertsitate honen azpifinantzaketaren ondorioa dira. Beste alde batetik baina, errektoretza-taldeak aurretik lortutako akordioak eta negoziazio kolektiboa ez errespetatzearekin ere lotura zuzena daukate. **Hona hemen langile guztiak dituzten arazoak adibide batzuk:**

- **Erretiro-akordioak alde bakarretik haustea**, erretiro-akordioak modu aldebakarrean haustearekin batera, erretiro aurreratuagatik jasotako kalte-ordainak desagertzeaz aparte, TEKAZEL langileak erretirora igarotzeko neurri espezifikoak eta lanaldi-murrizketak ere galdu ziren.
- **Zentroyen eta zerbitzuen itxiera inposatzea**, Hitzarmen Kolektiboa eta Lan Baldintzen Akordioa larriki urratuz, eta, era berean gainera, TEKAZEL langileek beraiei oporrak edota “berreskuratutako txandak” aukeratzea mugatzen dute.
- **TEKAZEL langileek artatutako zerbitzu askotako lan-gainkarga**. Azken urteetako egoera da hau, baina pandemiarekin areagotu egin da arazoa. Eusko Jaurlaritzak berak emandako datuak horren erakusgarri dira. Izan ere, 2019 eta 2022 bitartean ikasleen matrikulak % 19,6 eta irakasle-ikertzaileen kopurua % 12,8 hazi diren bitartean, TEKAZEL langileek % 2,9an baino ez dute egin. Ez da oraingo kontua gainera; Estatuko IRI/TEKAZEL ratio txarrenak maneiatzen urteak daramatza UPV/EHUK.

Bestalde, badira TEKAZEL langileei haserre, frustrazioa eta UPV/EHUrekiko desatxikimendua sortarazten dieten beste kontu batzuk ere:

- 2010ean aplikaturiko % 5eko soldata-murrizketa eta KPlaren igoera konpentsatzeko balizkoak izan ez diren soldata-igoerek eragindako **erosahalmenaren galera izugarria**. Guztira % 20a galdu dugu eta Itzarriren % 3ko ekarpena ere ez dugu oraindik berreskuratu.
- **Lanpostuen birbaloraziorik ez** egitea edota TEKAZELen erreferentziazko plantilla egungo egoerara eta etorkizuneko beharretara ez egokitzea.
- **Aldi baterako eta bitarteko langileen sustapenean diskriminazioa**, 2017ko aldi baterako lan-poltsen akordioan jasotako zerbitzu-eginkizunen, eginkizunen esleipenaren eta zigorren akordioen ondorioz.
- **Lanaldiaren zirkularra**, iraunkor bihurtu nahi diren udako, Gabonetako eta Aste Santuko **itxierekin**, baita aparteko orduen inguruko akordioak bete gabe.
- **Telelanaren proposamena** ez dator gaur egungo errealitatearekin eta aukerekin bat, ez dago IKTen garapenari egokituta, eta horrek, EAEko gainerako sektore publikoan baino baldintza okerragotan jartzen gaitu.

- Legezko baimen berriak jasotzen ez dituen eta egungo araudiarekin bat ez datozen mugak dituen **kontziliazio-neurrien proposamena**.

Gai horiek guztiek, sindikatuekin negoziatzeko benetako borondatea eskatzen dute, eta zoritxarrez, errektoretza-taldeak orain arte ez du borondate hori izan.

Horiek horrela, **iritsi da UPV/EHUko TEKAZEL langileek bere frustrazioa eta ezinegona azaleratzeko unea**. LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuek elkarrekin dei egiten dugu, **datorren asteazkenean, urriaren 25ean, euskal sektore publikoaren greban** parte hartzera eta gure eskubideen eta lan-baldintzen alde borrokatzera.

Arrazoiak soberan ditugu! Urriaren 25ean Greba!

LAB- Steilas-CCOO- ELA